

BERRI OROKORRAK

2018ko azaroaren 9an 9. zenbakia

**Euskaraz Bizi!!!!**

EUSKARALDIA BADATOR!!!!!!

Irailaren 20an zabaldu zen **AHOBIZI eta BELARRIPREST izen-ematea**, baina oraindik ere izena emateko aukera badago. Usurbildarrok bi bide ditugu izen-ematea egiteko: www.usurbil.euskaraldia.eus webgunearen bitartez, **eta eskuz, izen-emate orrien bitartez**. Orri horiek **NOAUA!N, POTXOENEAN, Usurbilgo sustatzaileen bidez edo kalean** ezarriko diren **informazio-mahaietan** eskura ditzakezue. **Azaroan, informazio-mahaiak NOAUA!KO KULTURALDIAREN baitan** jarriko dira, **honako hitzorduetan:**

Azaroak 10, larunbata, 21:00 – 22:00 bitartean, SUTEGIN.

Azaroak 11, igandea, 18:00 – 19:00 bitartean, SUTEGIN.

Azaroak 14, asteazkena, 18:30 – 19:30 bitartean, SUTEGIN.

Azaroak 17, larunbata, 18:00 – 19:00 bitartean, SUTEGIN.

Azaroak 18, igandea, 18:00 – 19:00 bitartean, SUTEGIN.

... eta azaroan BI EKITALDI NAGUSI.

Bi ekitaldi publiko nagusi izango dira: batetik, **TXAPAK BANATZEKO EGUNA eta** bestetik, **HASIERA-EGUNA.**

“TXAPAK BANATZEKO EGUNA”: azaroak 16, egun guztian zehar.

Ekimena hasi aurretik (azaroaren 23a baino lehen), **AHOBIZI zein BELARRIPREST modura aritzeko izena eman duten herritarrek dagokien txapa eskuratu beharko** dute. **Horretarako, azaroak 16, ostirala** izango da egun nagusia:

- o **Goizean zehar**: TXAPAK eskuratzeko aukera NOAUA!N edota POTXOENEAN.
- o **17:00tatik aurrera** Gaztaina jatea eta TXAPAK eskuratzeko aukera frontoi inguruan.
- o **19:30ean**: “Euskaraldirako 4 aitzakia: Nahia, Xabat, Eli eta Patxi” antzerkia SUTEGIN. NOAUA! KULTURALDIAREN baitako ekitaldia.
- o **20:00k arte**: TXAPAK eskuratzeko aukera frontoi inguruan.

“EUSKARALDIA, HASIERA-EGUNA”: azaroaren 23a, egun guztian zehar (programa berezia).

Hizkuntza-ohiturak aldatu nahi dituzue?

Euskaraldiaren ariketa soziala aurki datorkigunez, Soziolinguistikako klusterretik, **hizkuntza-ohiturak aldatu** zituzten bikotekide batzuen bizipenak partekatu nahi ditugu.

Datozen asteetan, aldaketa emateko **motibazioak, zailtasunak, estrategiak eta gakoak** aipatuko ditugu.

1- Zergatik aldatu edo zerk mugitu zituzten: motibazioak.

2-Zailtasunak.

3-Estrategiak.

4-Gakoak

1.7.- Garaiko giro sozio-politikoak: inposaketaren kontrako erreakzioa eta garaiko euskalduntzearen aldeko giroa

Kasu batzuetan, trantsizioko lehen urteetan *euskalduntzeak beste esanahi sozial bat* zuen eta giro hark eragin nabarmena izan zuen beraiek *euskalduntzeko* eta euskara erabiltzeko gogoia sentiarazteko.

1.8.- Euskararen aldeko giro soziala

Giro soziala aipatzen da kasu honetan ere, etxetik –gutxiago edo gehiago-euskaldun zahar izan, kaleko giroan erderara jo eta garaiko *giro sozialak* lagunduta edo eraginda, *berea, euskara, baloratzer*a pasa izana azaltzen da aldatzeko motibo gisa.

1.9.- Hasieran, asmoa ikastea, gero...

Bikote hauen kasuan, kide baten kasuan behintzat, hasiera batean, euskara ikastea zen asmoa, ez

besterik. Baina, ikastearen prozesu horretan zehar, euskara beste leku bat hartzen joan da bere bizitzan.

Eta zuek, hizkuntza ohiturak aldatzeko motibagarria izan daitekeen arraziorik topatu al duzue?

Datorren astean, aldaketaren prozesuan gainditu beharreko zailtasunak aipatuko dizkizuegu.

1.-Artezkari-ta-kontseiluaren bilera-data.

Azaroaren 14an izango da hurrengo Artezkari-ta-kontseiluaren bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinarazi dezakezue.

2.-Bazkietza-kuotaren kobrantza.

Azaroaren erreziboarekin batera **bazkietza-kuota** kobratuko zaizuela jakinarazi nahi dizuegu. Familia bakoitzeko **12,02 euro** dira.

3.-HARRIA HITZ bisita gidatua.

HARRIA HITZ bisitaren udazkeneko egutegia iragarri genizuen orain dela hilabete batzuk, eta lerro hauen bidez, hurrengo bisita-egunaren berri eman nahi genizueke: **Azaroaren 11n** izango duzue ibilbidea egiteko beste aukera bat, **Noauako Kulturaldiaren** egitarauan txertatu baitugu oraingoan. 60ko hamarkadara bidaiaria (eta gogoetaria) proposatuko dizuegu eta, bide batez, goiz-pasa ederra egiteko aitzakia ere bai, 10:00etatik aurrera, **HARRIA HITZ** bisita gidatua eskainiko baitugu **Usurbilen**.

Euskal tradizioa eta modernitatea ederkiki uztartu dituen herria da Usurbil; euskal sorkuntzarekin konprometitutako herria. Usurbilek ondo baino hobeto islatzen du 60ko hamarkadan Euskal Herrian gertatu zen kultura-errotak, eta baita errotak horren ondorena ere. HARRIA HITZ ibilbideak, herriguneari ikusgai daitezkeen zenbait elementuren bitartez, Usurbilek euskal kultura garaikidearen susperraldian jokatutako papera azalduz du helburu.

Horrez gain, **Zumeta Arte Estudioan** –Jose Luis Zumeta margolariak eta bere alaba Usok partekatutako espazioan– murgilduko gara.

Eta **TxTxTx** Txokoaldeko Txalaparta Txokoa–Oreka TX taldeko txalapartariak Usurbilen entseatzeko eta erakustaldiak egiteko duten gunea ezagutzeko aukera ere izango dugu.

Gehiago jakin nahi izatera, ibilbide honetan parte hartzera animatzen zaitugu.

EGUNA ETA ORDUA: Azaroak 11, igandea, 10:00etan.

EGITARAUA:

10:00: Usurbilgo frontoian elkartu.

10:05: HARRIA HITZ bisita gidatua herriguneari (Dema Plaza, Udarregiren omenezko eskultura, Zumetaren murala, Mikel Laboa Plaza, Tapiaren murala, Askatasuna Plaza, Sagardoaren Monumentua).

11:15: Zumeta Arte Estudioa bisita*

12:35: TXTXTX Txokoaldeko Txalaparta Txokora bisita* + tailerra (sagarra-egurra-txalaparta).

13:35: Mokadutxo (txorizo egosia, gazta eta sagardoa) eskainiko dugu Usurbilgo Sagardogileen eskutik, Sagardoa Route proiektuaren barruan.

14:00: Amaiera.

*Joan-etorriak egiteko furgoneta zerbitzua egongo da.

HIZKUNTZA: Azalpenak euskaraz emango dira.

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: 688 818 017 / info@kultour.proedo elkartea@noaua.eus

Bisita DOAKOA izango da. **Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa** da (23 lagun, gehienez).

4.-Gurasoen parte-hartzea berrikuntza pedagogikoan.

Ikastolan abiatutako berrikuntza pedagogikoez orain arte egindakoari jarraipena emateko asmoz, saio bat antolatu dugu **azaroaren 17an** (larunbata), goizeko **10:00etatik 11:30era**, **POTXOENEAN**.

Saioan, ikastolako langileok jasotzen ari garen formazioaren baitan lantzen ari garen ikaslearen profilarik hausnartutakoak azaltzarekin batera, zuen ikuspegiak eta ekarpenak jaso nahi genituzke.

2 galdera hauen inguruan arituko gara:

- **NOLAKO PERTSONAK HEZI NAHI DITUGU?**
- **NOLAKO GAZTEAK NAHI DITUGU IKASTOLAN IKASKETAK AMAITZERAKO?**

Talde handian eta talde txikian jardungo dugu, hausnarketarako prestatutako dinamiken bitartez.

Antolaketa ahalik eta hoberen gauzatzeko, parte hartzea erabakiko bazenu, arren, zure izen-abizena eta zein etapatako guraso zaren idazkaritzan eman, edota artezkaritza@udarregi.eus helbidera idatzi, azaroaren 14 baino lehen.

Saioa benetan interesgarria izango da! Horregatik, lerro hauetatik, animatu nahi zaituztegu parte hartzera! Zatoz eta zure alea jarri !!!!! Eskerrik asko!

5.-Gorputzaldien saio praktiko bat gurasoekin.

LHko ikasleekin aurrera daramagun Gorputzaldiak proiektua zertan datzan erakusteko asmoz, ikastolako gurasoekin aurrera eramateko saio praktiko bat prestatu dugu, eta bertan edozein etapatako gurasok parte hartu ahal izango du.

Saioa **abenduaren 1ean**, larunbata, izango da **10:00etatik 12:00etara ikastolako jangelan**. Parte-hartzaile kopurua egokia izan dadin, 30 pertsonako muga jarri dugu eta aukeraketa izen-emate ordenaren arabera egingo da. Horretarako bi modu izango dituzue: gorputzaldiak@udarregi.eus postara idatziz edota ikastolako idazkaritzan 943361216 telefono zenbakira deituz. Izena emateko azken eguna azaroaren 26a, izango da. Interesa baduzue eta proiektua barrutik ezagutu nahi baduzue, animatu.

6.-Errigora.

"Nafarroako erriberako uzta euskarari puzka". ERRIGORA egitasmoren udazkeneko kanpaina abian da. Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuak gure artean saltzearen truke, jasotakoaren zati bat, zonalde hartako euskalgintza laguntzera bideratuko duen ekimena da ERRIGORA.

Aurtengoan ere bi kutxa aukeran: ZURIA eta BELTZA. Bakoitza 50€ren truke.

Saskiek **50 euroko** salneurria dute eta bertan datozen produktuak hauek dira:

- **Saski beltza:** oliba-olio birjina, ozpin ekologikoa, ardo ekologikoa, muxika almibarrean, orburu-bihotzak, potxak, mahats-zuku ekologikoa, pikillo-piper osoak, borraja ekologikoa, zainzuri zuriak, piper txorizero mamia, tomate frijitua eta arbendolak.
- **Saski zuria:** Txokolatzeko gailetak, ardo eta kanela pastak, teilak, arroza, pasta ekologikoa, zainzuri zuriak, zainzuri-krema, orburuak, pikillo-piper osoa, pikillo saltsa, piperrada, ozpin ekologikoa, eta ardo ekologikoa.

Azaroaren 12a bitarte otarren eskaera egin ahal izango da. 943 361216 edo 943 374061.

OHARRAK ETAPAKA



HE

Ez dago berririk.



HH

Ez dago berririk.



LH

1.-Zorriak.

LH 5eko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu. Horregatik, **ASTEBURU HONETAN, norberak bere seme-alabei ondo begiratzea eta egoera horretan ohikoak diren higiene neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.**

Arazo hau ezabatzen erraza egiten ez dela jakitun, mediku batekin alderatu ditugun zorrien aurka egiteko jarraibide batzuk emango ditugu.

Zuen seme edo alabaren batek zorriak dituela ikusten baduzue:

1. Ondo begiratu familiako denei.
2. Zaindu arretaz bakoitzaren gorputz-garbitasunari dagokiona. Hala nola:
 - Orrazien garbitasuna arretaz begiratu.
 - Bakoitzak bere orrazi, eskuila, zinta, gantxo eta bestelako ile-apaingarriak izan eta erabiliko ditu.
3. Tratamendu berezia:
 - Buruko larrua zorrien aurkako lozio batez igurtzi (**KISE, ITAX,...**) eta horrela eduki 6 edo 8 orduz toalla batez estalita.
 - Oihala kendu ondoren, hildako bartzak (arrautzak) orrazi fin batekin baino, **eskuz banan bana kentzea eraginkorragoa da.**

Zazpi egun pasa ondoren tratamendua berriz egin aurrekoan bezalaxe.

NEURRI HORIEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBUKAERA HONETAN EGITEN TRATAMENDUA.



DBH

Ez dago berririk.